

2000ko OTSAILAREN 16ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi milako otsailaren hamaseiean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez; Koldo Alaña Zinegotzia, preso dagoenez, eta bilkurara etortzeko baimenik eman ez diotenez, ez du etortzerik izan; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTEN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

2.- HAUTESKUNDE OROKORRETARAKO MAHAIKIDEEN AUKERAKETA

Jendaurreko bilera egiten da, Hauteskunderen Erregimen Orokorrari buruzko Legeko 26. Artikuluan esaten dena betez.

Legeak eskatzen dituen pauso guztiak bete eta gero, Udal honetan ondoren aipatzen diren Hauteskunde-Mahaiak osatu dira zehazten diren pertsonekin eta karguetarako:

SEKZIOA: 1 MAHAIA: 1

TITULARRAK

Burua: MIKEL GOIKOETXEAUNDIA KARRERA – Iruntzi Baserria – NAN. 34.104.247

1. Kidea: AITOR ZUBILLAGA OREJA – Ainene Berri Etxea – NAN 44.162.867

2. Kidea: AITOR ARZADUN MENDIZABAL – Istileta Bekoa Baserria – NAN
72.467.589

ORDEZKOAK

Buruarena 1: ASIER MINTEGI URDAMPILLETA – Ostatu Berri – NAN 44.163.099

Buruarena 2: MAITE AGIRRE IRAZUSTA – Zumitza Berri – NAN 44.152.768

1 Kidearena 1: IÑIGO ARRESEIGOR BENGOETXEA – Ibai Gain Etxea – NAN
34.105.004

1 Kidearena 2: JON BALERDI ZALAKAIN – Kale Nagusia, 27 – NAN 72.445.570

2 Kidearena 1: JOSE M^a EIZAGIRRE ETXEBERRIA – Goiz Argi Etxea – NAN
34.089.491

2 Kidearena 2: LUIS JAVIER UGARTEMENDIA URDAMPILLETA – Gure Ametsa
Etxea – NAN 72.445.525

Era berean erabakitzen da, aipatu zerrenda hori, Hauteskunde Juntara bidaltzea, dagozkien notifikazioak egin ditzan eta kasu balitz alegazioak erabaki.

2.- 1999 URTEKO LIKIDAZIOA eta AURREKONTUAREN KONTU OROKORRAREN ONARPENA

ALKATETZAREN DEKRETUA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen, Lizartzako Udaleko 1999ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauak, Entitate Lokalen Aurre-kontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan eta abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuak, Entitate Lokalen Aurrekontu-Erregelamendua onartzekoak, 60.3 artikuluan, emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

Lehena.- 1999ko Lizartzako Udaleko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

KONTZEPTUA	PARTZIALA	GUZTIRA
Altxortegiko Izakin Likidoak 99-12-31ean		26.214.106
Kobratu Gabeko Saldoak, 99-12-31ean	622.326	
Kobratu Gabeko Saldoak, itxitako ekitaldikoak	-----	
Kobratu Gabeko Saldoak, Aurrekontuz Kanpok.	139.744	+ 762.070
DENERA		26.976.176
Ordaindu Gabeko Saldoak		- 22.155.402
Aurtengo Ekitaldikoak	21.232.507	
Itxitako Ekitaldikoak	-----	
Aurrekontuz Kanpokoak	922.895	
ALTXORTEGI-GERAKIN GORDINA		4.820.774
Saldo Kobragaitzak		-----
Altxortegi-gerakin likidoa		4.820.774
Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina		-----
<u>Gastu Orokorretarako Altxortegi Gerakina</u>		4.820.774

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako foru arauak, 49.5 artikuluan, eta foru dekretuak, 60.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

1999 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 1999 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Jarraian, Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikulua horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

1999 urteko Aurrekontuaren Likidazioa eta Aurrekontuko Kontu Orokorra aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.

4.- 2000 URTEKO AURREKONTUA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2000 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

SARREREN EGOERA

Kapitulua	<u>Izena</u>	Pezetak
------------------	---------------------	----------------

1	Zuzeneko Zergak	10.784.100
2	Zeharkako Zergak	500.000
3	Tasak eta Beste Diru-Sarrerak	4.537.458
4	Transferentzi Korronteak	46.553.442
5	Ondare Sarrerak	125.000
GUZTIRA		62.500.000

GASTUEN EGOERA

Kapitulua	<u>Izena</u>	Pezetak
1	Pertsonal Gastuak	27.471.918
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetan	18.993.788
3	Finantza Gastuak	611.518
4	Transferentzi Arruntak	10.597.662
6	Inbertsioak	1.500.000
9	Pasibo Finantzarioak	3.325.114
GUZTIRA		62.500.000

2000 urterako Aurrekontu Orokorra eta bera Egitaratzeko Oinarriak, aho batez onartuak izan dira.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

Azterturik, Lizartzako Udaleko 2000ko Plantilla Organikoa, hau da, funtzionarioei, pertsonal laboralari eta ebentualari gordetako lanpostuen zerrenda eta baita berauei dagozkien hizkuntz eskakizunak, hau guztia 7/1985 Legeko 90.1 artikulua agintzen duenaren arabera, eta halaber 781/86 Erret

Dekretu Legislatiboko 126.1 artikularen arabera, bertako zinegotzien ahobatez, erabaki da:

- 1.- Udal honetako plaza eta lanpostuen Plantilla Organikoa onartzea, 2000ko ekitaldirako, akordio honen zati espositiboan agertzen den arautegiaren arabera.
- 2.- Plantilaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea 781/1986 Erret Dekretu Legislatiboko 127 artikularen arabera eta baita Udaletxeko Ediktuen Taulan ere.
- 3.- Onartutako plantilaren kopia bat aipatu Erret Dekretu Legislatiboko 127. artikuluan aipatzen diren organismoei bidaltzea, plantila behin aipatu medio ofizialean publikatu eta gero.

KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. art.	Egoera	Ohar.
<u>IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK</u>				
<u>Idazkaritza-Kontuhartzailearen Azpimaila</u>				
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	1	B	J	70%
<u>ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA</u>				
<u>Laguntzaileen Azpimaila</u>				
ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	
<u>ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA</u>				
<u>Azpimaila Teknikoa</u>				
• Mota: Erdiko Teknikariak				
GIZARTE LAGUNTZAILEA	1	B	J	36%
Administratiboa				
• Mota: Laguntzailea				
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	40%
<u>Zerbitzu Bereziak</u>				
• Mota: Ofizioetako Pertsonala				
ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA	1	D	J	
GARBITZAILEA	1	E	J	
<u>LAN PERTSONALI GORDETAKO LANPOSTUAK</u>	Lanp. Kop.	Lanbide Maila	Taldea	Egoera
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA	1	6	E	BB

2000rako LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Kop.	Zerbitzua	Dedikazioa.	Titulazioa	H. Esk.	Derr. Data	Tald.	Maila	Azpi Eskal	Osag	Horn. Sist.
Idazkari/Kontuhartzail.	1	Idazk/Kont.	70%	GB	4	1991-02-06	B	18	IK	Ez	C
Administrari Laguntzail	1	AO	100%	EG	3	1991-02-06	D	9	AL	Ez	C
Gizarte Laguntzailea	1	AB	36%	GL	3	1991-12-01	B	13	AT	Ez	C
Liburutegiko Laguntzail	1	AB	40%	EG	3	1996-04-01	D	8	AL	Ez	C
Zerbitzu Anitzetarako Ofiziala	1	ZB	100%	EG	2	1991-02-06	D	11	OP	Ez	C
Garbitzailea	1	ZB	100%	EG	2	1992-05-01	E	6	OP	Ez	C

LAN PERTSONAL BEHIN-BEHINEKOARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Kop.	Zerbitzua	Dedikazioa.	Titulazioa	H. Esk.	Derr. Data	Tald.	Maila	Azpi Eskal	Osag	Horn. Sist.
Etxez Laguntzailea Etxeko	1	ZB	26,67 %	EG	2	1991-02-06	E	6	OP	Ez	L

2000 urteko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, aho batez onartuak izan dira.

5.- 2000 URTEKO LANGILEEN HITZARMENA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Eusko Legebiltzarrak, 1999ko martxoaren 5ean hartutako ebazpenarekin bat etorriz, Toki eta Foru Administrazioek 35 orduko lansaioa ezarri behar dute, 2002ko urtarrilaren 1.a baino lehenago.

35 orduko lansaioak, urtean zehar lanean 1590 ordutan egiatan presente izatea dakarren lansaioa egitea esan nahi du.

35 orduko lansaioa aplikatzea, eragin handia duen gizarte-hobekuntza izateaz gainera, enplegua sortzeko politika eraginkorraren barruan kokatu behar da, horretarako erakunde bakoitzean sindikatuen ordezkariekin sorkuntza berriko enpleguak izan dezaken eragina negoziatuaz.

Lansaioa laburtzeak nahiz enplegua sortzeak eragin oso handia dute Toki eta Foru Administrazioetako langileen gastuen kapituluan. Komenigarri da, beraz, lansaioa laburtzeko, enplegu sortzeko, ordainsariak jasotzeko eta Elkarkidetzarako diren ekarpenak egiteko neurriak osotasunean aztertzea, Administrazio ezberdinek eta gizarte-egileek ahaleginak elkarren artean banatuta egin ahal izateko.

Guzti hori kontutan izanik, zera proposatu du, Lizartzako Udalean, 35 orduko lansaioa, urtean zehar lanean 1590 ordutan egiatan presente izateak dakarren lansaioa ezartzea.

Era berean, Udaletxeko Langileak aurkeztu duten, komenio kolektiborako proposamena aurkeztu du, 1999ko komeniotik aldatzen den eskaera bakarra, IPC.aren arabera, hau da, 3 %ko igoera da.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, 35 orduko lansaioa eta IPC.aren 3%ko igoera onartzea, aho batez erabaki da.

6.- KUTXA. KONPROMISARIOEN IZENDAPENA

Lizartza, Lezo, Oiartzun, Zaldibia, Amezketza, Zestoa, Astigarraga, Usurbil eta Anoetako Udalok, herri txiki gisa sortu eta atera daitezkeen arazo

eta proposamenak Kutxako Batzar Orokorrera eramateko, elkartea egiten dugu. Elkarte honi Kutxa-n eginiko banaketaren arabera, bi ordezkari dagozkie.

Hau guztia kontutan izanik, eta dagozkion funtzioak betetzen hasi daitezten, honako izendapenak onartzeko eskatzen diogu Osoko Udal Batzarrari:

1.- Herri txikien sentsibilitatea KUTXAko Asanblada Orokorrean present egon dadin, JOSE MARI PEREZ BUSTERO jauna, NAN 15.645.904 zenbakiduna, eta SAIOA ETXABE AZKUE anderea, NAN 44.136.916 T zenbakiduna, gure ordezkari gisa izendatzea.

2.- Erabaki honen berri, KUTXAko Batzorde Eragileari ematea.

7.- BIDEAK BREATZEA

Basaitzaldeako Pista, Frontoi Aurreko Kalea eta Elbarrena Kalea konpondu beharra dagoela eta, hainbat kontratistei Aurrekontuak eskatu dira, emaitza hauek eman dituelarik:

COPRISA S.A. – 1.355,- eta 1275 pezta/m²

GUIPASA S.A. – 1.535,- eta 1300 pezta/m²

ARKAITZA S.A. – 2.065,- pezta/m²

Aurrekontu guztiak aztertu ondoren, eskeintzarik egokiena, COPRISA S.A.rena dela ikusten da.

Hori dela eta, Basaitzaldeko Pista, Frontoi Aurreko Kalea eta Elbarrena Kalea breatzea, COPRISA S.A.ri adjudikatzea, aho batez onartu da.

8.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

M^a JESUS AROZENA SAN SEBASTIAN

Guk Nahigenduen 5. Ezk. Etxebizitzan sukaleta berritu eta gasarentzako instalazioa jartzeko baimena.

MANUELA ORBEGOZO ANDEREAREN OINORDEKOAK

Zuloaga Baserria barrundik berritzeko baimena.

9.- URJENTZIZKO GAIA

URJENTZIZKO ARRAZOIA

Alkateak, hitza harturik dio: Tratatu nahi den gaia benetan garrantzi handi eta presazkoa denez, Bilkura honetan, urjentiz gai hau tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

ASTURIASEKO EPAITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOA

Erreklamazio Ekonomiko-Administratiboa tartejartzea, "Confederación Hidrográfica del Norte"ko Presidentearen ebazpenaren aurka. Ebazpen horretan, Eusko Jaurlaritzak igorritako, 99.0.3.N.24.0439 zenbakidun ditapenaren aurka, Lizartzako Udalak ezarritako errekursoaren aurkako erabakia agertzen da. Kitapena 1998 urteko isurketa Kanonari dagokiona da (V-20-000437) zenbaki espedientea.

Guzti honengatik,

EPAITEGIARI eskatzea, idatzia aurkeztutzat har dezala denbora eta forman era erreferentzia aegiten zaion ebazpenari erreklamazio ekonomiko-administratiboa tartekarria, eta "Confederación Hidrográfica del Norte"ri administrazio espedientea erreklamatu ondoren Udalari jakinarazteko, alegazio idatzia gauza dezan.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.